

Sagardoaren iragana eta oraina ekonomiaren eragile gisa

XXI. MENDEKO PUNTAKO TEKNOLOGIATIK XXI. MENDEKO **ESPERIENTZIA GASTRONOMIKORA**



Lurraldea: sagardoaren iragana eta oraina bat egiten dutenean. N.G.

berebiziko garrantzia eskal Herriko garapen... bai bere ingurunean, baleontziak bezalako enpresetan ere. Menar, Urumea eta Oria aldeko bizitza iturri izan... siontzien eraikuntzara... puntako teknologia... iritsi dira. Gaur egun... sagardoak eskualdeko eko... ragilea izaten jarraitzen... ekoizpenarekin baka... mortasuna azaleratzen... en errituaren ospakizu... duen sagardoaren kul... elazionaturiko guztiaren... turistikoa eta garapena... euskal idiosinkrasia-

rekin estuki lotua dagoen produktua eta gure kultura gastronomikoaren identitatearen izaera da, nahiz eta gaur egunean ez dakigun sagardoa noiz hasi zen egiten gure baserrietan. Produktu honen elaborazioak gorabehera asko izan ditu historian zehar, ekonomiaren motorra izanez une batzuetan, eta galzorian egonik beste batzuetan.

Halere beti bere errautsetatik birsortu da une bakoitzeko beharretara egokituz. XVI. mendean sagardoa balio erantsi handiko produktua izan zen, txanpon bezala erabiltzen baitzen merkataritza akordioetan, baina ondoren zailtasun askoko mendeak etorri ziren eta autokontsumorako produktuan bilakatu zen.

Denominación de origen, en primavera

El pasado lunes fue presentada la Denominación de Origen Euskal Sagardoa/Sidra Natural del País Vasco sustituyendo al Eusko Label que se utilizaba hasta ahora. La intención es que 35 sidrerías comercialicen bajo su amparo los 1,3 millones de litros producidos en 2016. La nueva denominación autoriza 115 variedades de manzana autóctona; con 29 manzanales y sidrerías guipuzcoanos inscritos en esta distinción. Esta bebida autóctona supone el 12% de la producción total del País Vasco, pero mira a largo plazo con el objetivo de que se cultive en Euskadi la manzana necesaria para elaborar toda la sidra, algo que se prevé conseguir dentro de 15 años.



Urumeako bailaren testuinguru hau izan zen eskualdeko biztaleentzat sagardoak garrantzia ekonomikoa izaten jarraitu zuen toki bakarretakoa. Hori horrela izanda, XX. mendearen hasieran sagardotegiak modan jarri ziren 1950. hamarkadan. Berriz ere krisian sartuz eta 1966. urtean ia desagertzeaz egon ziren. Baina beste behin ere, txotxaren errituak mundu osoko bisitariak erakarri ditu eta sektorea, berriz ere, Gipuzkoako eragile ekonomikoan bilakatu da.

Sagardoarekin erlazionatutako esperientzia turistikoaren sustapena Sagardoaren Lurraldea markapean gauzatzen da eta sagardotegiko ohiko usadioari balio erantsia ematen dioten bisita gidatuak, ekitaldiak edota tailerrak disenatzeaz, sustatzeaz eta merkaturatzeaz arduratzen da. Lurralde honen bihotza Sagardoetxean aurkitzen da, Astigarragan kokatua dagoen sagardoaren museoan hain zuzen, urtean 12.000 bisitari baino gehiago jasotzen dituen eta Euskadiko Museo Enogastronomikoen Sareko (Gastromuseums) kide dena. Turismo gastronomikoa sagardoaren lurraldean goraka doan sektoreetako bat da.

Sagardo naturalaren ekoizpena

Gaur egun, kalitatezko sagardoaren ekoizpena, bertako sagar barietateen sustapena nahiz babesa eta euskal sagardoarentzako Jatorri Izendapena eskuratzea dira lehen sektorea nahiz instituzioen apostu handiak. Zentzu horretan, Gipuzkoako Foru Aldundia bertako sagarrondoaren landaketaren aldeko apostua egiten ari da eta sagardogileak bertako sagarrekin hornitzeko sagardotarako sagarrak landatzera bideratua dagoen diru laguntza programa dauka.

Ahalegin hauen emaitza gisa, azken urteotan 100.000 sagarrondo baino gehiago landatu dira. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Sagardoetxea Museoko historialaria den Lourdes Odriozolak idatzitako *Gipuzkoako Pomologia Batzordearen Ehun Urte* liburua argitaratu berri du. Bertan, azkeneko ehun urte hauetan Foru Aldundiak sagardotarako sagarren alorrean egindako ibilbidea deskribatzen du, 1916ko abuztuaren 3lean Pomologia Batzorde Berezia martxan jarri zenetik gaur egunera arte, aurreko testuingurua ahaztu gabe. ■ N.G.

Petritegi

Sagardoaren jaiotetxea.

petritegi.eus